

PORTURA SO

Bazen behin, itsas bazterreko herrixka txiki bat, txikia bezain berezia. Bertan ez zen jende asko bizi, zaharrak gehienak, ahal zuten gazteak bizitza hobe baten bila irteten baitziren. Baina bazen familia gazte bat, aita, ama eta hauen seme Luisek osatzen zutena. Luis oso mutiko alaia zen. Aita, arrantzalea, herrixka hartako gizon gehienen antzera. Hau zen bertako ogibide nagusia, belaunaldiz - belaunaldi ikusi eta ikasi zutena. Egunero joan ohi zen itsasora, arrantzara goizean goiz, egun sendian, bere ontzi txikiarekin. Ama ere, arrantzaleen alaba, besterik ez zuen bizi izan, beste hainbat arrantzaletan emazterekin egunero portuan elkartu ohi zen arrantzatzeke sareak konponduz kontu kontari.

Aita, egunero bezala goizean goiz irten zen lanera. Luis eta amak ordea, elkarrekin gosaldia eta eskolarantz joan ziren. Amak, Luis besarkada batekin eskola atarian agurtu zuen, arratsalde-arte. Ondoren porturantz abiatu zen egunero bezala, bere lanera. Baina egun hura ez zen besteak bezalakoa izango, eguraldia txartzen hasia zen, eta itsasoa gero eta zakarragoa zegoen. Portura iritsi zenerako itsasontzi gehienak itsasoratuak ziren. Urduritasuna ere piztu zitzaion.

Baina ongi zekien ogibide haren berri. Itxarotea besterik ez zuen. Eguna pasa zuen lan eta lan, beste emakumeekin portuan, beti ere bere begirada itsas zabalean jarria, itsasontziren bat noiz porturatuko zen zain. Orduak pasa ahala itsasoa gero eta zakarragoa zen, bortitzagoa. Urduri, kezkatu. Baina norbaitek "ama!" oihukatu zuen, urrutitik. Bai, Luis zen! Aurpegia aldatu eta ezer gertatuko ez balitz bezala jokatu zuen. Amari irribarrea atera zitzaion, baina kezka barrenean jarraitzen zuen. Portuan barrena bueltatxo bat eman ondoren, biak etxerantz joan ziren. Oraindik arrats erdia bazen ere, ez zen asko falta eguna gainera biltzeko, eta aita falta zen.

Etxera iritsi eta, ohi bezala, ama-semeak afaria prestatzen hasi ziren. Hozkailutik arraina eta hau prestatzeko jakiak atera ondoren, lanean hasteko prest! Ama pentsakor, egoera ez zen batere erraza. Eguraldia ez zen lagun, ez zihoan hobera. Tarteka-marteka leihotik porturantz begiratzen zuen, baina senarraren arrastorik ez. Itsasoak bortizki jotzen zuen portuko barreran.

Ama bere barrengo larritasuna ez kanporatzen saiatu zen, baina alferrik. Luis ere zerbait nabarmentzen hasia zen. Aita zergatik ez zen oraindik itzuli galdetu zion amari. Normalean etxean izaten zen afalordurako, hiruren jolasa baitzen elkarrekin afaria prestatzea. Amak lasai egoteko eskatu zion, eguna pixkatxo bat aldrebestuko zitzaioala, besterik ez. Baina Luis gero eta urduriago zegoen, pentsakor. Eguneroko jolasa ez zen hain polita, agian, berririk ezak larria sortzen baitzuen. Amak, lasaitasuna mantentzearen, sukaldaritza liburua hartu eta Luisi errezeta irakurtzen hasi zen, bere urduritasuna baretu nahian edo.

Bat batean portuko sirenek jo zuten. Beldurra. Biak leihora hurbildu ziren. Portuan erdi txikitutako barku txiki bat sartzen ikusi zuten. Ez zen garbi ikusten ordea, eguraldiak ez zuen batere laguntzen. Portuan jende mordoxka hurbildu zen laguntze aldera. Amak orduan, bertan gelditzeko esan zion Luisi, ez mugitzeko, segituan zetorrela, mahaia jarri eta afaria zerbitzatzeko. Luis, ordea, leihotik begira geratu zen, erne. Amaren korrikaldia ikusi zuen. Eta amaren negarra sentitu zuen. Malkoa isuri zitzaion.